



VI EDICIÓN TORNEO NACIONAL DE CLUBES DE EUSKAL HERRIA



JARDUNALDI BIKOITZA ASTEBURUAN

Kluben arteko **NAZIONALAk jardunaldi bikoitza** eta bizi bizia izango du asteburu honetan VI edizioko **II FASEa ixteko**. Larunbatean, urtarrilak 18an, Amezketako **ZAZPI ITURRI** eta Andoaingo **GAZTELEKU** aurrez-aurre **eta igandean**, berriz, bi bizkaitarren artekoa, lurretako **OLABURU** kluba eta **LEMOA**. Larunbateko kanporaketan **zalantza asko** dago nork irabaz dezakeen eta, horregatik dago **ikaragarrizko interesa**. Zenbait arrazoi direla medio Zazpi Iturri, IV edizioko txapelduna, oso juxtu iristen da pelotariz eta horrek **kanporaketa orekatu bat** aurrikustea egin arazten du.

LARUNBATA 18an, ZAZPI ITURRI / GAZTELEKU

4 1/2ko partidurako **ZUBIRIA** izatea espero da Zazpi iturri aldetik eta **ETXEZARRETA** Gaztelekutik. Zubiriaren klasea ezaguna da, jendeari asko gustatzen zaio jokaldi ederrak egiteko bere gaitasuna ere bai, baina bere egoera fisikoa da kezkarik handiena. Aurrean izango duen Etxezarretak berriz, indarrez mugitzen du pelota eta arerioa inkomodo ibili arazten du. **Emaitza jakitea oso zaila** da.

Banakako partidurako **IORITZ EGIGUREN** Zazpi Iturritik eta **ELIZEGI** asteasuarrra Gazteleku ordezkatzen. Ioritz modalitate honetako espezialistetako bat da, botera jokatzen duena eta bi eskuekin pelota frontisetik urrutti jartzeko gai dena. Elizegi berriz, nahiz eta gutxi ibili banaka, edozeinen aurka jokatzeko kolpea du eta horrekin edozein dominatzeko gai da.

Binakako partidurako **AITOR ZABALA-AIZPURA** bikoa saiatuko da puntua Zazpi Iturrientzat ateratzen baina hori bera egin nahiko dute **ESKUDERO-ARRATE** Gaztelekurentzat. Puntu hau erabakigarria gertatzen bada final-laurdenetara pasatzeko, izugarria izan liteke tentsioa. Alde batetik Adunako Zabala aurrelari gazteak Eskuderoren ofizioa eta aurreko jokaldi nahastaila topatuko bait du. Atzean berriz Aizpuruk bizkarra erakutsi behar lioke Arrateri, baina ez dadila lasaitu badezpada ere.

Beraz, kanporaketa zoragarria larunbata goizerako Idiazabalen.



VI EDICIÓN TORNEO NACIONAL DE CLUBES DE EUSKAL HERRIA



IGANDEA 19an, OLABURU (lurretakoa) / LEMOA

4 1/2ko lehenengo partiduan Olaburutik **DIEZek** jokatuko du eta **AITOR ETXEBARRIA** izango da Lemoa ordezkatuko duena. Biak ala biak dira pelotarekin mina egiten badakitenak eta kantxan ondo mugitzen direnak.

Banakako partidurako Olaburuko **INUNZIAGA** eta Lemoako **AURREKOETXEA**. Biek airea asko erabiltzen dute eta tantoa lehenbailehen aurrean bukatzen saiatuko dira. Nork irabaz dezakeen jakitea zaila da. Puntu, berriz, oso beharrezkoa izan liteke bi taldeentzat.

Binakako partidurako **ODIAGA-PROL** izango dira lurretako klubetik eta **ELEZKANO-ARRESE** Lemoakotik. Hemen faboritoak Lemoakoak dira, txapelketa honetan erakutsi bait dute zeinen bikote sendoa osatzen duten.

Igande goiza eder baterako kanporaketa zoragarria. Kanporaketa honek emango dio amaiera II FASEari eta, baita ere, VI edizio honetan **Idiazabalen jokatu diren kanporaketei**. Hemendik aurrerako kanporaketa guztiak, final-laurdenak, finalaurre eta finala Zumarragako **BELOKI frontoian** jokatuko dira.

Ezin bukatu behin eta berriz **eskerrik beroenak** eman gabe **Idiazabalgo Udalari** eta bertako **ordezkariei**. Harrera eredugarria da, bai txapelketa honi eman diotena eta baita ere pelota kirolaren edozein ekitaldiri ematen diotena.

Mila esker guztiagatik eta VII ediziora arte.



INTENSA DOBLE JORNADA

Intensa doble jornada para este fin de semana en el **NACIONAL** de clubes que pone **fin a la FASE 2** de esta VI edición.

El sábado 18 de enero medirán sus fuerzas el club **ZAZPI ITURRI** de Amezketa y el club **GAZTELEKU** de Andoain y el domingo día 19 será el turno de **OLABURU** de Iurreta y de **LEMOA**.

El enfrentamiento del sábado se presenta incierto y, por ello, apasionante. La merma de efectivos, por diversos motivos, en el club Zazpi Iturri campeón de la IV edición, hace que el duelo se prevea equilibrado y vistoso.

SABADO 18, ZAZPI ITURRI / GAZTELEKU

Para el enfrentamiento **en la jaula** el representante de Zazpi Iturri será **ZUBIRIA**, siendo **ETXEZARRETA** quien represente los intereses del club de Andoain Gazteleku. Zubiria posee una clase que le permite ofrecer preciosas jugadas al público, es capaz de ejecutar acciones que hacen levantar de la silla al respetable. Quizá su merma física sea uno de sus handicap más importantes. Tendrá en frente a un Etxezarreta que mueve la pelota con fuerza y hace que el contrario deba emplearse a fondo. Partido con resultado impredecible.

Para el partido de **mano a mano** saltarán a la cancha **IORITZ EGIGUREN** defendiendo al club Zazpi Iturri y **ELIZEGI** haciendo lo propio para el club Gazteleku. Egiguren es un especialista en la modalidad y la distancia. Gusta jugar a bote y posee golpe suficiente como para mantener al contrario muy alejado del frontis. Elizegi no es un habitual en la modalidad pero puede acomodarse con facilidad al poseer una potente pegada con la que poder pasar a dominar en cualquier momento.

Para el de **parejas**, la dupla compuesta por **AITOR ZABALA-AIZPURU** pretenderá el punto para el club Zazpi Iturri y **ESKUDERO-ARRATE** tratarán de hacer lo mismo para el Gazteleku. Si depende de este enfrentamiento el pase a cuartos, puede resultar de infarto ya que la igualdad que se prevé puede hacer que afloren muchas tensiones. En los cuadros alegres el brioso juego del joven de Aduna Zabala se encontrará con el oficio y las jugadas ratoneras de Eskudero. En la zaga Aizpuru debería imponer su juego pero deberá emplearse a fondo ya que Arrate no se lo va a poner nada fácil.

Fascinante jornada de pelota para la mañana del sábado.



VI EDICIÓN TORNEO NACIONAL DE CLUBES DE EUSKAL HERRIA



DOMINGO 19, OLABURU (urreta) / LEMOA

El Domingo será el turno de dos escuadras vizcaínas que para disputar el primero de la mañana en la modalidad del **4 1/2** el club Olaburu deurreta hará saltar a la cancha a **DIEZ** siendo **AITOR ETXEBERRIA** el representante de Lemoa. Ambos contendientes poseen cualidades suficientes como para hacer mucho daño a su oponente. Se desenvuelven con solvencia en los cuadros alegres y, por tanto, juegan con criterio.

Para el **mano a mano** será **INUNZIAGA** quien represente a Olaburu siendo **AURREKOETXEA** el representante de Lemoa. No son pródigos en la distancia pero tardarán poco en adaptarse. Ambos gustan jugar a aire y pretenderán finalizar el tanto en los cuadros de adelante. Un partido de resultado incierto, cuyo punto puede resultar trascendental para los intereses de ambos clubes.

Para el de **parejas**, el club deurreta pondrá en liza a la dupla compuesta por **ODIAGA Y PROL** siendo **ELEZKANO Y ARRESE** sus oponentes. La pareja de Lemoa es una de las más potentes del campeonato por lo que los representantes del Olaburu deberían hacer las tareas antes de este enfrentamiento si no quieren ver francamente en peligro sus intereses.

Otra **apasionante jornada de domingo** que pondrá el **broche final tanto a la FASE 2 como al escenario de Idiazabal** en esta la VI edición, ya que las siguientes fases se disputaran en el frontón Beloki de Zumarraga.

Una vez más queremos **agradecer el excelente trato** dispensado por el **ayuntamiento de Idiazabal y sus representantes**. Un ejemplo a seguir en el trato que ofrecen, tanto a este evento como al deporte de la pelota. Muchas gracias y hasta la VII edición.